

ORIO

GUKA



PELLO ETA NIKOLASA
FESTAK ONDO PASA

Orain **GUKA** klik bakarrean

ZER ESKAINTZEN DU GUKA APLIKAZIOAK?

ALBISTEAK



AGENDA



ATERPE



GUKAKIDE
TXOKOA



DESKARGATU

Eskuragai
IOS



Eskuragai
ANDROID



GUKApp



Iritzia

Aiora Larrañaga Solaberrieta

Hesiaren beste aldetik

Tokiko kazetaritzan hamazazpi urtez buru-belarri lanean aritu ondoren, aurtun ikuspuntu berri batetik biziko ditut sanikolasak, oriotar gehienek bezala, hesiaren beste aldetik. Berria izango da niretzat, eta, gure artean, hein batean festa barrutik bizitzaren falta sumatuko dudaren, uste dut etxekoek gus-tura hartuko dituztela presarik eta joan-etorririk gabeko jaiak.

Oso txikiak zirenetik ikusi naute semeek kamera eskuan hartuta batean eta bestean argazkiak ateratzen, eta zaharrenak egun seinalaturen bat zetorren bakoitzean galdetzen zidan: «Ama, argazkiak atera behar al dituzu oraingoan?». Ezin kontatu zenbat ekitaldi izan diren: herriko jaiak, Gabonen bueltako desfile eta ekitaldiak, inauteriak, kirol

txapelketak, udaberriko azokak, udako askotariko ekitaldiak, estropadak, arraunlarien ongiatorriak, Gazte Festak, auzoetako jaiak... eta horrelaxe egin nezake zerrenda luze-luzea. Bidean, gainera, argazki kamerak eta nik izan dugu maitasun-gorroto harreman gorabeheratsua. Izan ere, ez zaitezte deskuidatu, erretratu onak ateratzeko trebea izan behar da, bai horixe. Nire indargunea, ordea, idatzizko komunikazioa izan da beti, eta buruhauste eta anekdota bat baino gehiago eman dizkit kamerak, batez ere festetan.

Joan-etorriak bai, baina ordainetan tokiko kazetaritzak eskaintzen du lanbide gutxik ematen duten aukera, eten-gabe gauza berriak deskubritzekoa. Horixe da, hain zuzen ere, lanbide horretatik gehien maite dudana, bizilagunak

ezagutu eta euren proiektu eta ekintzetan sakontzea; askori arraroa irudituko bazaio ere, ibilbide berrian horretan saiatzen ari naiz.

Beti dago zer ikasia, zertan hobetua, eta gaur egun dudan ikuspuntuak eman dit festen inguruko beste begirada bat. Lehen ez bezala, orain herrietako festak aztertzen ditut muinetik, jaiak iritsi baino hila-bete dezente lehenago horiek antolatzen hasteko erabakia hartzen den unetik, alegia. Momentu horretan hasten da atzera kontaketa, eta martxan jartzen da elkarrean eta udaleko sailen arteko koordinazio lana, erloju baten engranajea baillitza. Helburua: aurrekontuari ahal den etekin handiena aterata herritarren gustuko jaiak antolatzea, eta aitortu behar da horretarako ezinbestekoa dela tokiko eragileek

egiten duten ekarpena. Horiek dira herrietako festen motorra, elkarlanik gabe ezinezkoa litzatekeelako herritik eta herriarentzat sortutako festak antolatzea.

Oso txikiak zirenetik ikusi naute semeek kamera eskuan hartuta argazkiak ateratzen

Lehen ez bezala, orain festak muinetik aztertzen ditut

Horixe gertatzen da Orion ere. Imajinatu ezazue: zer lirateke sanikolasak Peio eta Niko-lasa dantzan jartzen dituzten

taldeko kideen gogorik gabe; buruhandiz jantzita ateratzen diren gazteen ilusiorik gabe; Danbolin musika eskolako trikitilarien, txistularien Salatxo abesbatzaren edo herriko txarangaren doinurik gabe; haurren krosa antolatzen duen atletismo taldeko kideen parte hartzerik gabe; herrigintzan sinetsita txosnan eta beste hainbat ekitalditan boluntario lan egiten duten oriotarren ekarpenik gabe; horiek denak koordinatzeko sanikolasetan lanean buru-belarri jarduten diren teknikari eta udal ordezkarien konpromisorik gabe; tabernari eta ostalarien lanik gabe, edo San Nikolas jaien nondik norakoak jaso eta guztien eskura jartzeko batera eta bestera joan-etorrian ibiltzen diren kazetarien ahaleginik gabe. Horiei guztiei esker ospatuko dira festak beste behin.



OHARRA

Orioko Udalaren eta AFADE feriararien elkartearen lankidetzaren hitzarmenaren prezio hauek adostu dira barraketarako:

- Sarrera bat: 2,5 euro.
- Sei sarrerako bonua: 10 euro.
- Azaroaren 30ean, prezio berezia: 1,5 euro sarrera bakoitza.





OHARRA

Egunero zaratarik gabeko bi ordu izango dira barraketan, bereziki, heziketa premia zehatzak dituzten haurren inklusioa errazteko:

11:30etik 12:30era, eta 17:00etatik 18:00etara.

kutixi
kafetegia

ondo pasa jaiak!

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17





Nolako sanikolasak datoz aurren? Zer nabarmenduko zenukete?

Leire Iturralde: Jendetsuak izango direla esango nuke. As-teburuan izango dira, eta horrek jendea erakartzen lagunduko du. Badakigu Durangoko Azoka ere asteburu berean izango dela, baina inguruko herrietan ez da beste festarik. Sanpedroetan justu alderantzizkoa gertatzen da: Usurbilgo eta Zarauzko festen artean gelditzen dira. Sanikolasetan, ordea, libre izaten gara, zentzu horretan, eta horregatik esango nuke jai jendetsuak izango direla.

Aratz Arregi: Zubia ere bada, eta egia da azken urteetan jende askok kanpora joateko ohitura hartuta zuela. Dena den, sanikolasei esker, herritarrak gero eta gehiago gelditzen dira festetan.

Egitarauaren zer atal da aipagarriena?

A. A. : Herritar denek goza dezaten egin dagoela: haurrek, helduek, gazteek... Denetarik aurki daiteke egitarauan; goizez nahiz arratsalde izango dira ekitaldiak, eta, noski, gaez ere bai.

Beza Ijurko: Edozein ordutan izango ditugu ekitaldiak oriotarrek eta kanpotarrek disfrutatzeke.

Zerbait berezia baldin badute sanikolasek, hainbat taldek eta eragilek parte hartzen dutela da hori, baita adin eta gustu desberdinetako herritarrei bideratutako ekintzak izaten direla ere. Ez al da hala?

L. I. : Sanikolasak beste edozein festa baino bereziagoak direla esango nuke, nahiz eta jai denak izan bereziak. Horretan, agian, badu zerikusia beste jai denek baino egun gehiago izateak festarako. Nik lehen aldiz parte hartu dut sanikolasetako Festa Batzordean. Sanpedroetan aritu izan naiz batzordeko lanetan, eta egia da kariño berdina jartzen dugula bi kasuetan, baina bi festak alderatu beharko banitu, sanpedroak, agian, parranda egiteko direla esango nuke, eta, aldiz, sanikolasak gehiago direla Orio herri gisa zer den erakusteko. Hori dela esango nuke desberdintasun nagusia.

A. A. : Nik lehen aldiz parte hartu dut Festa Batzordean, aurrez ez zidan atentziorik ematen eta. Oso eroso nengoen, festak

besteek antolatuko zituztela pentsatuz. Baina, egia esan, ikusi dut lan asko dagoela egiteko, eta herriari laguntza emateko prest agertu naiz. Are gehiago, herriak behar gaituela uste dut. Zama handiena betikoek hartzen dute, baina ahal den neurrian laguntzen badugu eta zama hori arintzen badugu, ongiatorria izango da beti laguntza.



«Asteburuan izango dira, eta horrek jendea erakartzen lagunduko du»

«Festa gauarekin lotzen da, baina elektrotxarangi esker, arratsaldeko giroa ederra izaten da»

«Gu saiatzen gara emakumeen presentzia indartzen, baina oraindik zaila egiten zaigu»

Lau egunetako egitarau oparoa izango da, ekitaldiz bete. Lan handia eskatzen al du hori guztia prestatzeak?

A. A. : Lehen bilerara joan nintzanean ikaragarritzko lana zegoela ikusi nuen, eta pertsona gutxi. Festak antolatzea zeregin zaila izango zela pentsatu nuen, baina bilerak aurrera joan diren heinean, arau edo pauso finko moduko batzuk ezarri ditugu: gauza batzuen antolaketa, adibidez, pertsona edo eragile jakin batzuen ardurara dela zehaztu dugu. Horrela, nahiko antolatuta zegoen guztia, baina, egia da, era berean, eragile barruan ere antolatu egin behar direla xehetasun denak.

L. I. : Egia da hori. Nire kasuan, adibidez, ni joan naizen arren bileretara, gero eragilearengana joan, informazioa zabaldu eta lanak antolatu ditugu denon artean. Lana ez dago Festa Batzordean, lana atzeko aldean dago, eragilearen barruan egiten diren beste bilera guztietan. Adibidez, nahiz eta Festa Batzordearen lehen bilera iraillean izan, gure eragilea sanpe-

droak amaitutakoan hasi zen sanikolasak lantzen. Izan ere, Durangoko Azokarekin batera izaten direnez festak, artista askok agenda okupatuta izaten dute.

Lan horren guztiaren ondoren, festez gozatzeko aukerarik izango al duzue?

A. A. : Beti dago tartea horretarako! Ahal denean lagundu, eta libre zarenean, aprobetxatu. Lana eta aisia uztartzea bezala da, azkenean. Bi ordu izanagatik ere, aprobetxatzen saiatzen gara.

L. I. : Eta lanean gauden bitartean ere, gozatu egiten dugu. Txosnetan, adibidez, oso ondo pasatzen dugu, bestela ez ginatekeen han egongo. Boluntario gisa egiten dugun lana izan erren, pozik eta gustura egiten dugu. Ezin gara kexatu.

Zer da San Nikolas jaietan gehien gustatzen zaizuena?

A. A. : Niri bereziki ilusioa egin dit herri bazkariaren hitzordua berreskuratzeak. Egia da azken urteetan ere egin dela, baina orain arte herriko talde batek kozinatzen zuen bazkaria, eta aurren, aldatzea erabaki da: catering enpresa batek ekarriko du janaria, eta kuadrilla bakoitzak lagundu beharko du mahaien muntaiarekin. Kuadrilla bakoitzaren ardurara izango da jana zerbitzatzea.

B. I. : Festa, ia beti, gauarekin lotzen da, baina elektrotxarangi esker, arratsaldeko giroa oso ederra izaten da, eta asko gustatzen zait adin desberdinetako herritarrak musikaren inguruan bilduta ikustea.

L. I. : Bigarren eguneko kontzertuen zain nago ni. Genero ikuspegia oraindik sartu gabe dugu festetan, eta pena handia dut, izan ere, protagonistaren rola duen emakume bakarra izango da kontzertuetan. Oso txikia da emakumeen presentzia. Dena den, bigarren egunean, Akaleia bezalako emakume indartsu bat igoko da eszenatokira, eta hitzordu horretarako gogoz nago.

Hurrengo urtera begira, arlo horretatik hobetu nahiko zenituzkete festak? Edo zer egon daiteke hobetzeko?

L. I. : Pedagogia handia dago egiteko oraindik herrian. Herrian, eta musikaren munduan, orokorrean. Gu saiatzen gara emakumeen presentzia indartzen, baina oraindik zaila egiten zaigu.

BODEGON
Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com
Erreserbak: 943-83 00 05

Gabon
TABERNA

ONDO PASA JIAKI!

SUKALDEA IREKITA

Pintxoak | Plater konbinatuak | Ogitartekoak

EUSKO GUDARIEN KALEA, 7 · 943-83 06 09

LEIHOEN INSTALAKUNTZA



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Eusko gudari, 7
Tel.: 943 13 00 77 sagasti@sagastileihoak.com 20810 ORIO (Gipuzkoa) www.sagastileihoak.com

Kolon Txiki

edaritegia · jatetxea

Ondo pasa festetan!

Herriko Enparantza 4 · ORIO · Tel.: 943-83 00 44

Kepa Loidi
harategia-urlategia

24 orduz harategi banagailua



Pelotari kalea, 1 · Orio · 943-83 25 65
www.kepaloidi.com · info@kepaloidi.com



6

San Nikolas jaiak

Osteguna, 2024ko azaroaren 28a **GUKA**



«Herritar denek goza dezaten egina dago aurtengo egitaraua»

Aratz Arregi, Leire Iturralde eta Beza Ijurko Festa Batzordeko kideak

Hiru oriotar gazteek aurtengo San Nikolas festetako batzordearen bileretan parte hartu dute azken hilabeteetan, eta horien inguruko aurreikuspenez eta sentipenez hitz egin dute Orio Gukarekin.



Imanol Iburguren Memoriala jokatu zen lehen aldiko argazkia.

Imanol gogoan, herriko pilotari txikien pilotakada bakoitzean

San Nikolas festen egitarauaren barruan, bada azken urteotan bere lekua aurkitu duen kirol ekitaldi bat: Imanol Iburguren Memoriala. Herriko pilotarien partidez gozatzeko aukera eskaintzen du lehiak, eta aurtengo jaietan berrikuntzak izango direla jakinarazi dute arduradunek.

Imanol Iburguren gazte oriotarra 2020. urtean zendu zen. Iburgurenek pilota zuen maite, eta pilotalekuaren inguruan igarotzen zituen orduak eta pilota elkarteari laguntza eskaintzen zion askotariko ekitaldietan. «Imanol gure laguna zen, taldeko pilotaria izandakoa, eta umeen partiden antolaketan laguntzen zuen. Laguntza eskaintzen zigun, eta haren oroimenez zerbait antolatzea nahi genuen; horregatik,

haur kategorietako txapelketa sortu genuen Imanol Iburguren Memoriala izenarekin», adierazi du Orioko Pilota Elkartearen lehendakari Ibon Aranaldek.

Hala, COVID-19ak eragindako etenaldiaren ondoren, Orioko Pilota Elkarteak I. Imanol Iburguren Memoriala antolatu zuen 2021eko sanikolasetan. Izurriari aurre egiteko neurriek, ordea, ez zuten lehen edizio hura amaitzen utzi, eta, beraz, 2022an jokatu zuten

behar bezala lehen memoria. Orduetik jarraitzen dute pilota lehiaketa antolatzen, eta, beraz, aurtengoa hirugarrena izango da.

Imanol Iburguren Memorialak bere lekua hartu du San Nikolas festen egitarauaren barruan. Kanporaketak aurreko hilabeteetan jokatzen dituzte, eta jaietan finalak izaten dituzte Orioko pilotalekuan. Horiekin batera, bestelako partidak ere antolatzen dituzte. «Ditugun baliabideekin ahalik eta

txapelketa emankorrena eskaintzen saiatzen gara. Emakume pilotariak ekartzen ditugu, Gipuzkoan punta-puntan ari direnak, eta festen partida nagusi gisa, berriz, afizionatu mailako pilotarien arteko partidak izaten ditugu», azaldu du pilota elkartearen lehendakariak.

Azken urteetan Garfe pilota enpresako kirolariak ekarri dituzten arren, aurtengo edizioa egingo dute, eta Bengoetxea VI.a ezaguna izango da Orioko

pilotalekuan kirol ikuskizuna eskaintzen.

Orio herri arraunlaria da. Hori horrela da, eta gainontzeko kirol taldeek eta elkarteek bada-kite: «Indar handia duten beste kirolak badira, eta jakitun gara pilotarako grina zertxobait jaitsi egin dela, bai Orion eta bai beste herrietan. Hala adierazi digute, behintzat, beste herrietako pilota elkarrekin delegatuek». Horren arrazoiak zeintzuk diren jakitea zaila da, baina kirol gogorra izateak, zentzu baten ba-



kartia izateak, izan dezake eragina. «Ez da sekula erraza izan herrian pilota sustatzea, jendeak ez du ohitura handirik frontoi ingurura gerturatzen. Xelebrea da, historian zehar pilotari handiak izandakoa da Orio, baina herriko ohituren ondorioz edo, galtzen joan da pilotarako afizioa. Kirolaz aparte, gure kultura ere bada, eta guraso garenok hori helarazten jarraitu behar dugu», gaineratu du Aranaldek.

Hala ere, «zorionez», Aiako pilotari txikiak Oriora joaten

hasiak dira, eta horrek klubera «aldea» ekarri duela onartu du. «Badugu pilotak indarra hartu eta aurrera egingo duen esperantza. Azkenean, gure helburua da umeei eta gazteei Oriotik irten gabe herrian bertan lehiatzeko aukera ematea, afizioa egin eta mantentzeko».

Parekatuagoak

Bide horretan, sanikolasetan Orioko pilotari txikienekin gozatzeko aukera izango da berriro. «Gure klubean infantil

mailara arteko pilotariak ditugu, eta maila horretan kanpoko txapelketetara joaten hasten dira, Gipuzkoako hainbat herri-tara. Horregatik, herrian horrelako txapelketa bat jokatu ahal izatea pozgarria da umeentzat. Umeei aukera eskaintzeaz gain, herritarrek ere pilota partida ederrak ikusteko parada izaten dute», gaineratu du.

Aurten Bengoetxea VI.a ezaguna izango da Orion ikuskizuna eskaintzen

Bi maila sortu dituzte, eta Gipuzkoa osora zabaldu dute parte hartzeko deia

Halaber, ahalik eta ikuskizun onena eskaintzeko asmoz, berrikuntzak txertatu dituzte aurtengo edizioan. Izan ere, azken urteetan eskualdeko beste herrietako klubak gonbidatzen zituzten Imanol Ibar-guren Memorialean parte hartzera, baina herri batzuetako kirolariek maila oso ona zutela ikusirik, bi kategoriatan antolatu dute aurten lehia: «Partida batzuetan pilotarien arteko aldea handiegia zen, eta ikuskizunak galdu egiten zuen xarma. Hori horrela, aurten bi maila sortu ditugu, eta parte hartzeko gonbitea zabaldu dugu Gipuzkoa osora, ahalik eta partida parekatuenak eskaintzeko. Horrela, umeak ere gusturago arituko direla uste dugu».



Orioko pilotari txikiak partida bat jokatzen.

ARROSPIDE BANAKETAK
Santuenea, 5 - Usurbil
info@arrospidebanaketak.net
943-36 44 60 - 607 23 35 17

Portu
Ertelegia - Jatorria
Kazolitak, baserriko oilaskoa, parrillako errekiak, eguneko menua...
Santio Erreka auzoa, z/g - AIA
943-89 44 34

Orio
OPTIKA
Herriko plaza 3, Orio
943-13 05 82 · 688 62 63 66
opticaorio@gmail.com
Col. 5.156

URTE GUZTIAN EKITALDIAK GIROTZEN
Herri bazkariak
Pintxo dastaketak
Ekitaldi bereziak
Zure festaren zaporea
647 890 796 / euskalparrilla@gmail.com
EUSKAL PARRILLA

arkaitz taberna
• EGUNEKO MENUA
• OGITARTEKOAK
• PINTXOAK
• PLATER KONBINATUAK
• KARTA
Ondo pasa festak!
abeslari kalea 6 - 943-83 16 57



10

San Nikolas jaiak

Osteguna, 2024ko azaroaren 28a **GUKA**



ERASO MATXISTARIK GABEKO FESTAK

EZ BETI DA EZ

Ez izan konplize erasoen aurrean; ez gelditu isilik.
Herritar guztion ardura da **ERASO MATXISTAK BAZTERTZEA.**

Bakarrik
BAI
da Bai

ZER DA INDARKERIA MATXISTA?

Emakumeen, nesken eta arautik kanpoko genero-identitate edota sexualitatea duten pertsonen duintasunari, estimuari eta osotasun fisiko eta mentalari zapalkuntza eragiten dieten ekintzak dira.

Egiturazko indarkeria da, gizarte guztietan eta gizartearen eremu guztietan azaltzen delako.

- *Indarkeria sexista*
- *Homofobia*
- *Lesbofobia*
- *Transfobia*
- *Arrazakeria*

ZER EGIN ERASO BATEN AURREAN?

- **Ez isildu eta ez ezkutatu.** Erasoaren erantzukizuna erasotzailearena da, ez eraso jasan duenarena.
- **Erantzun erasotzaileei, geldiarazi beren jarrerak.** Eman babesa eta laguntza lagunari, izan ezaguna edo ezezaguna. Ez utzi bakarrik!
- **Sexu-erasoa edota eraso fisikoa jasan baduzu,** zeure erabakia da salatzea edo ez.
- **Bilatu konfiantzako norbait** lagun zaitzan.



24 ORDUZ MARTXAN DAUDEN TELEFONOAK

SALATU NAHI BADUZU
Larrialdiak 112

SALATU NAHI EZ BADUZU

SATEVI: Sexu erasoak jaso dituzten emakumeentzako informazioa eta arreta: 900 840 111



ORIOKO BALIABIDEAK (astelehenetik ostiralera)

Gizarte zerbitzuak:
943 83 03 46 luz.6

Emakumeon* Ahalduntze Eskola:
623 178 553

SEXU-ERASO BATEN AURREAN AUKERA HAUEK ERE BADITUZU:

ZUZENEAN OSPITALERA JOAN

Osasun-azterketa egingo dizute, nahiz eta osasun-txartelik izan ez. Salaketa bideratzeko betebeharra dute.

GUARDIAKO EPAITEGIRA JOAN

Biktimari laguntzeko zerbitzuaz galdetu; han azalduko dizute guztia. Kalkutako Teresa plaza 1, Donostia. Astelehenetik larunbatera, 9:00-14:00 eta 17:00-20:00 Igardetan, 10:00-14:00

FROGAK funtsezkoak dira izan daitekeen epaiketari begira.

EZ ALDATU ARROPA, eta **EZ GARBITU** gorputzeko atal bat bera ere osasun-azterketa egin arte.
Osasun-txostenen kopia eskatu, salaketa jartzeko beharko duzu.

GUZTION GOZAMENERAKO FESTA BATZUEN ALDE, **ESAN BAI:**

Zure buruarekin ondo sentitzeari, sexualitateak askatasunez bizitzeari, harreman eredu berriei, zu zeu izateari, zaintza-lanak banatzeari, askotariko gorputzei, elkartasun multikulturalari, plazerari!



«Aske sentitzea eta aske izatea kontu bat da, eta nahi dugun guztia egitea beste bat»

Aizpea Esnaola eta Miriam Garcia Saregileko arduradunak

Festak ondo pasatzeko gonbidapena helarazi dute Saregileko arduradunek, beti ere, giro «sanoa eta elkarren zaintzan oinarrituta». Gainera, plazan puntu morea jarriko dutela gogoratu dute, «indarkeria matxistaren prebentziorako».



Aizpea Esnaola eta Miriam Garcia Saregileko arduradunak. UTZITAKOIA

Festetan denei gustatzen zaie ondo pasatzea. Hala ere, emakumeen aurkako eraso gehien gertatzen diren eremuak dira jaienak. Horren aurrean, zer mezu helarazi nahiko zeniekete oriotarrei?

Oriotarrei esan nahi diegu ondo pasatzea besteei ondo pasaraztearekin lotuta dagoela. Besteei gozarazten ari garenean, gure gozamenaren esperientzia askoz ere aberasgarriagoa da; beraz, festak esperientzia hori sentituz eta

disfrutatuz bizitzera gonbidatzen ditugu herritarrak. Giroa sanoa eta elkarren zaintzan oinarritua denean, zoragarria da parranda egitea.

Aske sentitzea eta aske izatea kontu bat da, eta nahi dugun guztia egitea beste bat.

Indarkeria matxistaren aurkako puntu morea jarriko dute, sanikolasetan zerbait gertatuz gero, herritarrek nora jo izan dezaten. Zer helburu dituzte gune horrek?

Gune horren helburua indar-

keria matxistaren prebentzioa da. Gai horrekin lotutako eskuorriak, pegatinak eta beste hainbat material eskuratu ahaliko dira han, eta indarkeria matxistan adituak diren bi pertsonarekin hitz egiteko aukera ere izango dute herritarrek. Festetan edo festen testuingurutik kanpo ikusten eta bizitzen ditugun indarkeria matxista kasuak kontatzeko eta salatzeko helburua ere badu, Emagineko langileek bildutako guztia txosten batean

jasotzen baitute udalarentzat. Herritarrek gaiaren inguruan izan ditzaketen zalantzak eta kezkek adierazteko eta barruak husteko gunea da, hasiera batean.

Horrez gain, festetan erasoren bat gertatzen bada, puntu morea izango da erreferentziazko gune feminista. Han, adituak erasotuari eta haren

jarraibide eta kontakturako bide daude jasota. Gonbidapena egiten diegu herritarrei kontaktu horiek erabiltzeko; momentuan bertan edo beste egun batean, baliabide horiek erabiltzeko zalantzarik ez egiteko. Horretarako daude.

Non izango da puntu morea? Zer egunetan? Eta zer ordutegi izango du?

Eraso matxisten aurkako gunea abenduaren 5ean, 6an eta 7an egongo da plazan, Turismo Bulegoaren parean, eta 22:00etatik 02:00etarako ordutegia izango du.

Orioko festak parekideak direla uste al duzue? Zer bide egin daiteke zentzu horretan?

Festak parekideak izateko saiakerak egiten dira, eta herritarren artean bada horretarako borondatea. Baina, oraindik, bide horren hastapenetan daude. Jarrera eta egiteko modu matxistak dituen herri batean bizi gara, eta aldaketek kontzientziazio, borondate eta lanketa handiak eskatzen dituzte.

Festak antolatzeke modua aspalditik datorren eredu batean oinarrituta dago, eta mugimendu feministak beti esan duen bezala, aldaketak errotik egin behar dira benetako iraultzak gerta daitezten. Aurrera begira, pentsatzen jarri behar dugu Orion nolako festak antolatu eta jaso nahi ditugun, zer helburutan eta baliotan oinarritutako jaiak nahi ditugun erabakitzeke.



«Besteei gozarazten ari garenean gure gozamenaren esperientzia askoz aberasgarriagoa da»

«Festetan erasoren bat gertatzen bada, puntu morea izango da erreferentziazko gune feminista»

«Festak parekideak izateko saiakerak egiten dira, eta herritarren artean bada horretarako borondatea»

inguruari babesa eta baliabideak eskaintzeko prest egongo dira. Bestalde, eraso matxistei aurre egiteko gida zabaldu du udalak, eta han ere zenbait



12

San Nikolas jaiak

Osteguna, 2024ko azaroaren 28a **GUKA**



ONDO PASA
SAN NIKOLAS
Jaiak!



Orioko
Herri
Ikastola
ORIO GARA



oriokoikastola.eus



«Poza ematen du omenaldirako herriak erraldoi taldearekin pentsatu izanak»

Imanol Telleria, Olaia Eizagirre eta Jon Itxaso
Orioko erraldoien taldeko kideak

Herriko festetan egiten duten lana eskertuko diote aurten erraldoien taldeari, sanikolasetan omendu egingo baitituzte. Orio Guka talde horretako hiru kiderekin bildu da omenaldiaz eta festez hitz egiteko, eta horietako bat elkarrizketaren hasieran ohartu da aitortza jasoko dutela, ezusteko pozgarria hartuz. Hirurek taldean dagoen lagun giroa nabarmendu dute, eta haiekin minutu batzuk igarotzea besterik ez dago hori horrela dela ziurtatzeko.

Erraldoien taldea omenduko dute sanikolasetan. Nola jaso duzue albistea?

Olaia Eizagirre: Zer? [Ez zuen omenaldiaren berri].

Jon Itxaso: Sorpresa!

O. E.: Ostras! Festa Batzordean nabil eta aipatu zuten zerbait, baina zeharo ahaztuta nuen kontua.

J. I.: Udaletxetik deitu ninduten, eta ez nuen espero, baina

oso gustura hartu nuen albistea.

Omenaldia, gainera, herritarren proposamen baten ondorioz antolatu dute. Bereziagoa al da horrela?

Imanol Telleria: Bai, zalantzarik gabe. Poza ematen du omenaldirako herriak erraldoi taldearekin pentsatu izanak.

O. E.: Horrelako gauzak esker-tu egiten dira.

I. T.: Ez dakigu nola joango den, baina han egongo gara.

Urduri al zaudete?

I. T.: Ez.

J. I.: Ni bai.

O. E.: Ni orain hasi naiz urduri jartzen...

Erraldoien barruan zaudetela, kanpokoak ikusteko aukera izaten duzue. Nola bizi dituzue umeen erreakzioak?

O. E.: Oso pozik egoten diren

2024 San
NIKOLAS
FESTAK



Gozatu eta
ondo pasa!!



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16
Orio



Orioko erraldioen taldea, Pello eta Nikolasarekin. UTZITAKOIA

uneak izaten dira, asko oso urduri egoten dira, eta beste batzuk, txikienak, buruhandien beldur izaten dira. Niri asko gustatzen zaidana da, adibidez, herriko ia ume guztiak ezagutzen ditugula; hori horrela, izenez agurtzen ditugu, eta izugarriko sorpresa aurpegiak jartzen dituzte. Hori oso pozgarria da. Dena den, egia da umeak arreta gehiago jartzen hasi direla eta bakoitzak daramatzagun oinetakoak ezagutzen dituztela, eta horrela zailagoa bilakatzen da sorpresa ematea. **Familiak biltzeko aitzakia da erraldioen taldea, ezta?**

I. T.: Bai, izan ere, ohikoena da umeak gurasoekin joatea erraldoiak ikustera; txikienak behintzat, zaharragoak, agian, lagunekin joaten dira. Horrek familia giro hori sustatzen laguntzen du.

O. E.: 8 edo 10 urtez gorakoak kuadrillarekin gelditzen dira buruhandien aurretik edo

atzetik korrika ibiltzeko. Adin tarte zabala hartzen du erraldioen kalejirak, eta gazteak kenduta, ia herri osoa ibiltzen da haien bueltan. Adin desberdinetako herritar ugari elkartzen dituen ekintza da.

J. I.: Erraldoiaren barruan zaudenean jendetza hori ikusteak asko betetzen zaitu.

Eta zuentzat zer da erraldioen taldea?

J. I.: Erraldioen taldeak laguntza behar zuelako hasi nintzen ni, semeak urtebete zuela. Urteak igaro dira, eta orain semea hor ikustea ederra da, erraldoi txikiekin. Bide bat irekitzen ari garen sentipena dut. Politza izango litzateke, ordea, etorkizunean erraldoi txikien eta handien artean zerbait egotea, ume horiek bideari jarraipena eman diezaioten. Izan ere, txikitik erraldoiak ikusten hasten dira, eta gero horiekin ibiltzen hasten dira, baina bidea eten egiten da.

I. T.: Bai, tarte handia dago erraldoi txikietatik handietara. Bide horretan galdu egin daitezke, eta buruhandiekin jarraitzen dute, edo ez dute jarraitzen. Beraz, ondo legoke jarraipen hori bermatzeko aukera egotea.

O. E.: Gu, azkenean, lagun talde bat bildu gara, oso ondo moldatzen gara gure artean, eta polita da modu honetan festen parte sentitzea. Izan ere, ni ez naiz oriotarra, baina horrelako ekintzetan parte hartuz bertakoa sentitzen naiz.

J. I.: Gertuko jendea, ezagutzen duzuna, taldean parte hartzera animatzen duzu. Seme-alabak dituztela badakizu, eta erraldoi barruan ez bada ere, kanpoan egongo dira kalejira ikusten. Eta azken urteotan hori egin dugula uste dut, kanpoan zeuden herritar horiek gerturatu taldea ezagutzera.

O. E.: Gainera, horrela lortu duguna da gure seme-alabak

erraldioen bueltan ibiltzea. Hala, festak iristen direnean seme-alabai erakuts diezaikegu festak ez direla soilik norberak ondo pasatzean oinarritzen, baizik eta parte hartzea hor dagoela eta lagundu egin behar dutela. Festak iristeko desiratzen egoten dira, urduri.

I. T.: Beste puntu bat ematen die horrek festei.

San Nikolas festez gozatzeko tarterik izango al duzue?

I. T.: Bai, noski!

O. E.: Gu 24 orduz kalean egoten garen horietakoak gara.

O. E.: Bi ikastetxeek antolatzen dituzten kirol probetan parte hartuko dugu; guraso gisa, talo janean ere izaten gara; herri bazkarian... Ahal dugun ekitaldi denetara joaten gara. Ez digu denborarik ematen etxean egoteko. Gaez parranda gutxi egiten dugu, hurrengo egunean badakigu goiz mugitu behar garela eta.

J. I.: Lehen gaez ere aprobe-



«Erraldoiaren barruan zaudenean jendetza hori ikusteak asko betetzen zaitu»

«Gaez parranda gutxi egiten dugu, hurrengo egunean goiz mugitu behar gara eta»

«Tarte handia dago erraldoi txikietatik handietara, ondo legoke hor jarraipen bat egotea»

txatzen genuen, eta orain, gero eta gutxiago, baina, tira.

O. E.: Sanikolasetakoak egun gutxi dira, eta egunak edo ekitaldiak aukeratzen hasiz gero, bukatu dira jaiak. Beraz, denetara animatzen gara, eta hurrengo egunetan hartuko dugu atseden.

Festen barruan ba al duzue ekitaldi gustukoenik?

J. I.: Herri bazkaria gustatzen zait niri: adin desberdinetako herritarrak elkartzen diren una da.

O. E.: Kuadrillan elkartzeko momentua ere bada.

I. T.: Urte guztian zehar gutxi ikusten dituzun pertsonekin biltzeko aukera duzu, poteoa egin, gero bazkaria...

Oriotarrentzat mezurik?

J. I.: Talde irekia garela esan nahiko nieke, eta taldean parte hartzeko aukera edozeinek duela. Seme-alaba txikiak gennituenen gu hasi ginen bezala, beste batzuk egongo dira herrian gaur egun, eta lasai gertura daitezela laguntzera edo parte hartzera.

O. E.: Egia da hasiera batean errespetua ematen duela figura handi horien azpian sartzeak, baina oso eramangarriak dira; ez dute asko pisatzen. Beraz, nik emakumeak animatuko nituzke, erraza delako eta ez delako dantzan jakin behar Pello eta Nikolasa eraman ahal izateko; musikaren erritmoa jarraituta, nahikoa da. Ahal duguna egiten dugu, ez baika-ra profesionalak, eta helburua beti ondo pasatzea da.

J. I.: Gure erraldoiak ez dute pisu gehiegi, arinak eta oso eramangarriak dira.

O. E.: Ondo pasatu sanikolasak!



Nola bizi dituzte San Nikolas festak adin desberdinetako oriotarrek?



Karmen Monreal

«San Nikolas jaietatik gehien gustatzen zaidana kaleko alaitasuna da. Festen barruko jardueri dagokienez, jendea dantzan eta kantuan ikustea gustatzen zait. Orio jai herria da.

Oro har, adin guztietako jendearen-tzako jarduerak antolatzen dituzte, ez



Jendea dantzan eta kantuan ikustea gustatzen zait. Orio jai herria da»

zehazki nire adinekoentzat, oso heldua naizelako; 82 urte ditut. Ez dut uste jarduera gehiago gehitu behar direnik egitarauan, badaudelako kontzertuak eta haurrentzako jarduerak.

Ni Pasaiatik nator, baina entzun dudanagatik, jaiak asko aldatu dira, eta hobeak dira gaur egun».



Oksana Slavych



Orioko festak aldatzen ari dira, plaza oinezkoentzat jarri dutenetik, batik bat»

«Nik tabernatik (Zaharren Babeslekutik) bizi ditut jaiak, eta San Nikolas festetatik gehien gustatzen zaidana da herri osoa elkartzea dela. Gainera, beste herri batzuetatik jende gehiago etortzen da, urteko azken jaiak direlako. Lasarteko edo Zarauzko nire lagunak etortzen dira gurekin ospatzera; denok animatzen gara.

Egitaraua egokia dela iruditzen zait, ez dut uste besterik behar duenik. Oso ondo antolatzen dituzue jaiak. Denentzat ekitaldiak daude, bai helduentzat, baita haurrentzat ere.

Orioko festak aldatzen ari dira, plaza oinezkoentzat jarri dutenetik, batik bat. Jende gehiago etortzen da, eta gurasoak lasaiago egoten dira, haurrak ez baitaude arriskuan, lehen bezala».



Axier Egaña

Erraldoiak eta haurrentzako jarduerak dira orain gehien bizi ditugun ekitaldiak San Nikolas jaien baitan, izan ere, gure hurrekin igarotzen ditugu jaiak.

Herri bazkariak eta denok parte hartzeko pentsatuta dagoen egitaraua dira sanikolasen osagai nagusiak. Baina, zerbait eskatzekotan, eguraldi ona es-



Eguraldi ona eskatuko nuke, jaietan askotan ez dugu zorte onik izaten eta»

katuko nuke festetako egun horietarako, jaietan askotan ez dugu zorte onik izaten eta.

Gaueko martxa ez dut lehen bezainbeste jarraitzen orain, baina gau giro sanoagoaren falta sumatzen dut, gehienbat musikari dagokionez, eta euskal giroaren hutsunea ere nabari dut. Horren falta sumatzen dut.



Andoni Uranga



Lagunekin dantza egin eta inor begira ez duzula sentitzea bezalako momentu erromantiko horiek ederrak dira»

«Lagunekin denbora pasatu ahal izatea eta haiekin gozatzea dira festetan gehien gustatzen zaizkidan gauzak. Lagunekin dantza egin eta inor begira ez duzula sentitzea bezalako momentu erromantiko horiek ederrak dira; herriko festek bakarrik ahalbidetzen dute une horiek bizi ahal izatea.

Gazteentzat aukera anitza egoten dela iruditzen zait. Musikari dagokienez, egunero egon ohi da kontzerturen bat edo erromeriaren bat. Musikari gaitzen gaitzen ere gustura joaten gara; herri bazkarira, adibidez. Egitarau oparoa eta anitza dugun arren, genero ikuspegia txertatzea falta dela iruditzen zait».



EGIN ZURE ERRESERBA
625 70 08 98
ZENBAKIRA DEITUTA



Olaskoegi auzoa, 36 · AIA-ORIO · 625 70 08 98

Ondo pasa jaiak!



eta ezagutu abantailak

Bi bazkidetza mota aukeran:



papera

60€ urtean



digitala

52€ urtean

Egin orain bazkide, baina 2025era arte ez duzu ordainduko.

Abantailak:

- Papereko argitalpenak etxean, Gukakide digitalak izan ezik.
- Argitalpenak digitalki eskuragarri.
- Guka aplikazioan bazkideentzako txokoa.
- Argazkiak eta bideoak deskargatzeko aukera.
- Zozketak eta lehiaketak.
- Ekitaldiak.
- Deskontu sarea.

Zure ekarpenari esker, herriko albisteen berri ematen jarraituko dugu!



Bidali bazkidearen **izen-abizenak eta telefonoa:**

✉ **bazkide@ukt.eus** posta elektronikora

☎ Bezero arretara **whatsapp mezua** (607 49 87 25)



Zenbat dakizu sanikolasei buruz?

Gukako bazkide bazara, parte hartu **galdera-erantzunen jolasean** eta irabazi **Errigorako kaxa bat**



GUKAkide



Herriko festak barraren beste aldetik gozatu behar direnean

Arantxa Ibar herritarrak urteak daramatza Orioko jaietan lan egiten. Jatetxe batean hasi zen afariak ematen; jarraian, parrandarako taberna batean igaro zituen urte dezente; eta, gaur egun, kafetegi bateko langilea da, parranda girotik urrun. Ostalaritzaren ikuspuntu guztiak probatu ditu, beraz, Ibarrek.

Festak, parranda, musika, umorea, ekitaldiak, jai giroa... nagusi izango dira sanikolasetan. Egun bakoitzeko egitaraua hartu eta nora joan edo zer ekitaldi ikusi aztertzen hasiko dira oriotar gehienak. Hori horrela izateko, ordea, badira egun horiek lanean igaroko dituzten beste hainbat herritar. Horietako bat da Arantxa Ibar. Urte asko daramatza ostalaritzan, era askotako barrak izan ditu aurrean, baina nola bizi ditu berak festak barra horien atzetik?

Gaztetan Aterpe jatetxean hasi zen lanean, eta handik tabernara egin zuen salto. Azken hilabeteetan, berriz, kafetegi bateko langilea da Ibar. Barra bakoitzak festaren ikuspegi desberdina eman dio. «Jatetxean, lana eta parranda, uztartzen nituen: afariak

eman, dena jaso, eta parrandara joaten nintzen. Hurrengo egunean berriro lanera sartzen nintzen, fresko-fresko. Garai hartan adinak laguntzen zuen eta!».

Handik Errusta tabernara lekualdatu zen; sei urte eta erdiz aritu zen han lanean. Tabernako urte haiek pozez gogoratzen ditu Ibarrek, nahiz eta amaieran beherakada nabarmena bizi izan zuen tabernak; izan ere, COVID-19aren ondorioz eta Espainiako Estatuak ezarritako neurriekin, tabernako giroa eta bezeroak mantentzeko lana zaildu egin zitzaiola onartu du. «Murrizketa horiek amaitu eta gero, gainera, lehen herriko jaiak sanikolasak izan ziren, eta herritarrek ikaragarriko gogoa zuten festarako; izugarriko lan pila egin genuen. Hurrengo urteetan, ordea, kanpotik jende

gutxi etortzen hasi zen Oriora, eta jendeak plazan edo txosnetan, aire zabalean, egoteko ohitura hartua zuen». Ordurako taberna uzteko erabakia hartua zuen Ibarrek, baina egoera hark erabakia berrestera eraman zuen: «Tabernan hamar bezero besterik ez genituen, eta barra barruan, berriz, lau langile».

Aste Santuaz geroztik, berriz, Kutixi kafetegian ari da lanean, eta, beraz, aurtengo sanikolasak lan berrian ariko den lehenak izango ditu. Festa giroan lan egingo duen arren, ez zaio iruditzen festa usaina

«Azkenean, ostalaritzan bazabiltza, hauxe da tokatzen zaizuna»

gehiegi gerturatuko denik kafetegira: «Ni eguerdian sartzen naiz lanera, eta herriko jaietan, eguerdiak edota arratsaldeak ez dira festa girokoak izaten kafetegietan. Beraz, oso festa desberdinak izango dira niretzat aurtengoak. Gehienez ere, ohi baino zertxobait beranduago itxi beharko dugu kafetegia, herritarrei afaltzera joateko ordua atzeratzen zaielako poteoan dabiltzanean eta ogia eroatera etorriko direlako gero».

Hori da, hain zuzen ere, tabernan edo kafetegian lan egitearen desberdintasunik handiena: «Kafetegian festa giroa ez da kasik usaindu ere egiten. Tabernan, berriz, festa nagusitzeaz gain, aurreko egunak festa horietarako prestatzen pasatu behar dituzu; beharrezkoak izango diren produktu denak izan eta antolatu behar dituzu. Zentzu

horretan, behintzat, zailagoa da».

Ohituta

Festa giroan barraren atzealdean lanean aritzeak jaien beste ikuspuntu bat ematen du. Hori argi du Ibarrek: «Barre asko egin dut barraren beste aldean, denetarik ikusi baitut. Gainera, ordu asko ematen ditugu lanean, eta nahiz eta lanean egon, ahalik eta ondoen pasatzen saiatzen naiz».

Barra asko ezagutu eta urte asko igaro ditu lanean, beraz, Ibarrek. Festetan lanean aritzen ohitu egin dela dio: «Azkenean, ostalaritzan bazabiltza, hauxe da tokatzen zaizuna. Gakoa moldatzen ikastea da, dituzun uneak aprobetxatuz festaz gozatzeko. Adinak ere asko eragiten du; gaztetan, jatetxean edo tabernan aprobetxatzen duzu, baina, gaur egun, nahiago dut goizeko giroaz gozatu».



Arantxa Ibar.



Gozategi taldea, abuztuan Azkoitiko plazan eskaini zuen emanaldian.

Orioko plazara itzuliko da Gozategi, bi urte eta gero

Herrian jotzea berezia izango dela diote Gozategi musika taldeko kideek, etxean maitatuak sentitzen direla. Abenduko San Nikolas jaien barruan eskainiko duten emanaldian, taldea azken urtebetean egiten ari den birako ikuskizun beraz gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.



Gozategi musika taldeak 32 urte luzeko ibilbidea egin du dagoeneko. Orion sortu zen taldea, 1992. urtean, eta ordutik, Euskal Herriko nahiz beste hainbat lekutako plazak eta herritarrak dantzan jarri ditu Asier Gozategik eta Iñigo Goikoetxeak gidatzen duten taldeak.

Izan ere, nork ez ditu ezaizten *Kalanbreak*, *Dantzalekuan*, *Egunon* edota *Porru patata* abestiak? Edozein aldaka, trinkoena ere, alde batetik bestera mugimenduan jartzeko doinuak dira horiek. Nork ez ditu festa eta lagun giroan *Udako egunak*, *Nor*, *nori*, *nork* edota *Korrika* bezalako kantak abestu? Heldu, gazte zein umeen errepertorioko kantak dira guztiak.

Orion, noski, hamaika emeraldia eskaini ditu Gozategik urte horietan guztietan. 2022ko abenduan izan ziren azkeneko Orioko oholtza gainean, duela bi urte, hain zuzen ere. Orioko taldea izanik, gustuko dute kideek herrian bertan aritzea, eta Orioren eta oriotarren aldetik ere maitatuak direla sentitzen dutela diote: «Sentipen eta emozio horiek izatea ederra eta polita da. Beraz, berezia da oso herrian kontzertua eskaintzea», adierazi du Asier Gozategi taldeko kideak.

Eta herrian jotzea berezia izango den arren, abenduko

San Nikolas jaien barruan eskainiko duten emanaldia azken urtebetean egiten ari diren birako ikuskizun bera izango da. «Gainontzeko kontzertuetan jo ditugun abestiak entzun ahal izango dira. Azken finean, 30 urte baino gehiagoko ibilbidean ditugun kantak ugariak dira, eta asko ezagunak egin dira herritarren artean. Abesti batzuk, zortez, herriarenak bihurtu direla ere esan dezakegu. Eta joaten garen tokira joanda, abesti horiek eskatzen dizkigute. Beraz, Orio ez da salbuespena izango!».

Gozategi taldearen diskoen pot-pourri bat izango da, beraz, kontzertua, zaleen eta ez hain zaleen gustukoa. «Belaraldi desberdinak biltzen dira zuzenekoetan, eta guztiak pasatzen dute ondo, plazan giro jator eta euskalduna sortuz», dio oriotarrak.

Plazarik plaza

32 urteko ibilbidean zehar Gozategi taldekoek zerbait lortu badute, esperientzia eta ezagutza dira lorpen horiek. Plazarik plaza ibili dira urteetan zehar, eta plaza horietako giroa nola joan den aldatzen ere bertatik bertara ikusteko parada izan dute leku pribilegiatuenetik: oholtza gainetik.

Eta Gozategi taldeko kideek garbi dute noiz izan zen aldaketa nagusia: 2000. urtean. «Reggaetoiari iritsi zenean, gutxi gorabehera. Gazteen begietan, eta beraiek esango luketen

gisan, herrietako plazek guaiak izateari utzi zioten, eta gazte denak taberna zuloetara sartzen hasi ziren. Plazetako indarra galdu zen», gogoratu du Gozategik.

Talde gisa, garai hura beldurrez bizi izan zutela onartu du oriotarrak, nahiz eta plazak hutsik ez zituzten ikusi: «Plaza asko hustu ziren arren, guk, zorionez, ez genuen horrelakorik bizi izan. Baina auzo txi-

Gustuko dute herrian aritzea; oriotarren aldetik maitatuak sentitzen dira

«Euskal Herriko plazak osasuntsu daude», esan du Asier Gozategik

kietako festak antolatzeari utzi zioten, eta orduan krisi garaia iritsi zen. Noski, izua ere nagusi zen euskal taldeen artean. Berdin zuen nora joan, Euskal Herriko edozein herritara, Bartzelonara edota Madrilera; musika bera entzuten zen leku guztietan».

Hala ere, poliki-poliki, egoerari buelta ematen hasi ziren, plazak berriro pixkanaka betetzen. Azken urteetan, gainera, indarra berreskuratu dute euskal plazek, «batik bat, auzo txikiak festek, baina baita herrietako plazek eta erromerietan ere», gaineratu du Gozategi taldeko kideak. Euskal musikak bere tokia egitea lortu du berriro, eta tabernetan ere gero eta gehiago entzun daitezke euskarazko abestiak.

Gaur egungo egoera azken urteetan egin den lanaren emaitza dela uste du oriotarrak: «Modu inkontziente batean egin bada ere, lana egin da, eta orain emaitzak ikus daitezke. Euskal Herriko plazak osasuntsu daudela esan dezakegu. Gainera, euskal doinuak eta hitzak reggaetoiarenak edo gaur egungo musika modernoarenak baino askoz atseginagoak direla nabarmendu behar dugu. Musika alaiagoa egiten dugu».

Ea bide horretatik jarrai dezakeen euskal musikak, eta hori berresteko parada Orioko plazan izango dute herritarrek San Nikolas jaietan.



ARNAITZ RUBIO APREA

SU KIA

TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

ondo pasa jaiak!

Abaromendi 38, behea 1

ORIO · 943-89 21 29

sega

ERRETEGIA

Santio erreka 29, Aia
943-12 51 30
segaerretegia@gmail.com

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA

Ondo pasa jaiak!

Arrantzale kalea, 63 behea · ORIO · 943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com · www.podologia-oinarri.com

GOZATEGIA

Fruta denda

ONDO PASA FESTAK
ETA EROSI ORION!

Eusko gudari, 24 · 943-83 12 81

edaritegia

Antilla jatetxea

Ondo pasa festak!

Abeslari kalea, 2
ORIO
943-83 23 09

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitartekoak



04 Feministak

Mugimendu feministarekin elkarlanean, festa parekideak lortzeko pausoak emango dira. Hiru dira lan-lerroak: guztiontzat espazio seguruak sortzea, genero-rolak eta ardurak orekatzea eta artista emakumeen ikusgarritasuna lantzea.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Oholtzan emakume eta gizonen arteko artisten oreka %50 inguruan ibiltzea.
2. Ohiko lan-banaketa buelta ematea, otorduetan bereziki: zaindu egingo da zerbitzen, garbitzen eta mikroa eskuan daudenak zein diren.
3. Herriko festek kirol-lehiaketak hartzen dituzte eta lanketa berezia egingo da lehiaketa horien kategorizazioan eta irabazleen ikusgarritasunean.

05 Euskaldunak eta euskaradunak

Euskara erabiliko dugu herriko festetan, eta bozgorailutik entzuten dugun musika ere nagusiki euskarazkoa izango da. Hori bai, ez gaude itxita beste hizkuntzetan egiten den kulturetara, baina euskaraz egiten den kulturaren ardaztu nahi ditugu San Pedro eta San Nikolas festak.

Herri-izaera errespetatu eta aldarrikatzeko, Euskal Herriko eta Orioko ohiturak mantentzea da helburua, baina tradizioa ez dadila aitzakia izan festa berdinzaleagoak ez gauzatzeko, tradizioa berritzen diren ohituren multzoa baita, garaiko balioetara egokitzen dena.

Festek baliagarri izan behar dute herriko proiektu nagusiak balioan jartzeko, hala nola herriko kultur, kirol- eta aisialdi-taldeak, eragile sozialak, ikastetxeak eta Danbolin Musika eskolak, besteak beste.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Euskaraz sortutako kulturarentzat %75eko kuota proposatzen dugu, eta %25ekoa beste kulturetakoentzat.
2. Aztertuko da ea plazako musikak (oholtzakoak eta txosnakoak) eta programazioak betetzen ote dituen ezarritako kuotak. Programatu aurretik eta ondoren aztertuko dira laginak.
3. Herri-izaera eta kohesioa indartzen duten ekitaldiak bultzatuko dira, baina bereziki zainduko da berdintasunaren eta aniztasunaren inguruko zeharlerroak betetzen dituzten edo ez.
4. Orioko festen historia ezagutzeko ikerketak bultzatuko dira.
5. Festetan eragile guztien lana jarriko da balioan programan eta ekitaldian zehar.

06 Anitzak, askotarikoak

Denok elkarrekin ospatu nahi ditugu festak. Izan ere, jaiak baliagarriak dira herrian bizi diren kolektibo guztien ikusgarritasuna lantzeko. Horregatik, ahalegina egingo dugu gutxiengoan dauden herritar-taldeek ere erdigunea har dezaten eta ohikoagoak diren proposamenekin uztartzeko.

Gutxiengoan dauden kolektiboak askotarikoak izan daitezke. Esaterako, baliatu ditzagun festak arrakala sozialak bistaratzeko, etorri berriak herrian integratzeko edo festa-eredu bakarra heteroauratetik ez sortzeko.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Elkarlan jarraia egingo da herrian abiatu den LGBTQ+ kolektiboarekin.
2. Atzerritarren edo etorkinen proposamenak jasotzeko ahalegina egingo da, antolatutako komunitateekin hasita. Proposamenak eskatuko zaizkie eta festara gonbidatu.
3. Lanketa sozialen bat oinarrian duten ikuskizunak eta eragileen proposamenak txertatuko dira festetan.
4. Proposamen berriak hegemonikoekin uztartuta aurkezteko ahalegina egingo da.
5. Kolektibo horien alde lanean ari diren herritarren bitartekaritza eta ikusgarritasuna landuko da.

07 Bizigarriak

Plaza izango da festaren epizentroa, plaza herritarrez beteta ikustea da festetako argazki ederrenetakoa. Halere, ibilbide ezberdinak sortuko dira festa herriko beste txokoetara zabaltzeko.

Eguneko festa bultzatuko da, adin guztietako herritarrengana iristeko modurik osasungarriena delako. Halere, ez da gaueko festa kriminalizatuko, denontzat izan baita gaua noizbait festa-momentua.

Herriko festetan kontsumo kontziente eta arduratsuen inguruko gogoeta sustatuko dugu.

Azkenik, herri eta jai zaintzaileak antolatu nahi ditugu, zaintza ez baita mendekotasuna duten pertsonen beharrak asetzeko egiten dugun lana bakarrik. Elkarzaintza, autozaintza, komunitatearen zaintza, espazioaren eta ingurugiroaren zaintza kontuan izango dugu.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Ekitaldi nagusiak plazan egingo dira, erdigunea delako eta azpiegitura nagusiak bertan daudelako.
2. Ekitaldietan bolumena zainduko da, goizaldeko eta goizeko lehen orduetan nagusiki.
3. Plazaren garbitasuna zainduko da, ekitaldien aurretik eta ondoren.
4. Ekitaldi ibiltarien zirkuituak landuko dira, festa auzo eta kale gehiagotara iristeko. Publiko egingo dira ibilbide horiek, ezustekoak ekidin eta segurtasuna bermatzeko.
5. Aurrera begira, herrian kontsumitzen diren sustantzien inguruko ikerketa egingo da.

08 Jasagarriak

Kontsumo arduratsuan eta naturarekiko errespetuan antolatu nahi ditugu herriko festak. Horregatik, bereziki zainduko ditugu festetan eskaintzen ditugun otorduak. Aukera beganoko otorduak eskainiko ditugu, eta herriko gertuko produktuekin osatuko ditugu festetako menuak. Horrez gain, festetan sortzen den zaborraren inguruko kontzientzia eta ekintza zuzena landu nahi ditugu.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Otorduen diseinuan, osagaiak herrian bertan erostea lehenetsiko dugu.
2. Otorduetan, ahal denean, etiketarik gabeko menuak sortuko ditugu, menu beganoa eta normala bezalako terminoak sahistuko ditugu.
3. Herri-bazkarietan menuak oinarri berbera eta beganoa izatea da helburu nagusia.
4. Dastaketetan menu beganoa eskainiko dugu.
5. Festa-batzordeak erraztasunak eskainiko dizkie otorduen antolatzaileei helburuak lortzen errazteko.
6. Otorduetan sortzen den zaborra gutxitu eta egokiago kudeatzeko lanketa zehatzak egingo dira.

O H A R R A K

Dokumentu hau festa-batzordeak landu du 2024ko udaberriko bileretan.

Festen balioen multzo hau malgua eta irekia da, eta etengabe berrikusi eta egokituko da.



Herriko festak antolatzekeo balioen multzoa

8 balio 43 proposamen

1 Parte-hartzaileak

Herritarrok egiten dugu festa; elkarleen bidez, herritarrak gara motorra. Herri langilea da Orio, talde-lanean ari dena. Askotariko herritarrak arduratik eta gozamenetik ari dira, eta parte-hartze horrek baditu bi dimentsio: proposatzailea eta exekutatzailea. Hau da, festa-ereduaren inguruan hausnartzea, batzordean proposamenak egitea eta, festa aurretik zein jaiegunean, lan egin eta gozatzea da helburua.

Eskatzeaz haratago, norberak taldean egitea da gakoa. Festetan ez gara hornitzaile eta bezero: lanean ari direnak berentzat eta oriotarrentzat ari dira. Horregatik, ongi etorriak izango dira festen inguruko balorazioak edo kritikak, baina lanean aritu den jendea zainduz beti.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Batzordeko bilerak garaiz antolatu: sanpedroak urtarrilean eta sanikolasak uztailean hasi.
2. Batzordeko deialdiak ahalik eta irekienak eta erreferentzialenak egin, ohiturak sortu.
3. Batzordean gutxien parte hartzen duten adin-tarteak modu berezian landu: gazteak eta adinekoak.
4. Batzordean festari lotutako profesional guztien parte-hartzea ziurtatu.
5. *Parte-hartzearen dikotomia* landu: batzordean iritzi emateaz gain, festetan ardura bat hartuz.
6. Festa-batzordetik, datak gerturatu ahala, ardurak eta lanak banatzeko izen-emateak bultzatu.
7. Etengabe, festa parte-hartzailea bihurtzeko formulak arakatu.
8. Ikusteko diren ekitaldiak eta parte-hartzea bultzatzen dutenak orekatu.

2 Belaunaldiartekoak

San Nikolas eta San Pedro festek aukera eskaini behar dute adin ezberdinetakoek parte hartzeko. Identifikatu dugu zein adin-tartetan jaisten den parte-hartzea: umeei, 12-16 urte bitarteko gaztetxoei eta 60 urtez gorako herritarrei erraztu behar zaie festaz gozatzeko aukera.

Ahalegin berezia egingo dugu belaunaldiarteko ekintzak bultzatzeko; alegia, belaunaldi ezberdinetako oriotarrei aukera eskaini behar diegu festa elkarrekin bizitzeko.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Berariaz lanketa egingo dugu 12-16 urteko gazteekin eta hirugarren adinekoekin, bi ikastetxeen, Txurumuski aisialdi-taldearen eta Zaharren Babeslekuaren bitartez.
2. Ahal bada, egunero programatuko ditugu adin ezberdinetarako ekintzak.
3. Gazteen egunak edo adinekoentzako festa-eguna izendatuko ditugu.
4. Gazteen arteko jokoetan gaur egungo eta garai batekoak uztartuko ditugu.
5. Beste herrietan sortzen diren belaunaldiarteko ekintzak herrira ekartzeko aukera aztertuko dugu.
6. Sukaldaritza-ekimenak gako izan daitezke belaunaldiarteko ekimenak egiteko, baina aukera gehiago aztertuko ditugu. Alegia, sukaldaritza ez dadila izan adin ezberdinetakoak biltzeko interesgune bakarra.
7. Herriko elkarte gastronomikoen inplikazioa bultzatu, belaunaldiarteko proposamenak sortzeko.



3 Askeak eta seguruak (erasorik gabeak)

Askotarikoak gara oriotarrak eta inor ez da erasotua izango adin, arraza, kultura edo sexu-aukerarengatik. Herriko festen antolakuntzak ez die zirrikiturik utziko erasoei eta erasotzaileei.

PROPOSAMEN ZEHATZAK

1. Aldiro-aldiri, indarkeria matxistari, indarkeria sexistari, LGTBQ+ fobiari, arrazakeriari eta beste indarkeria-kasuei erantzuteko protokoloa berrituko da festen aurretik. Protokoloak zehaztuta utziko ditu nola identifikatuko den erasoa, erasotzailea festa-gunetik kanporatzeko bidea, erasotuari eskaini beharreko laguntza eta aholkularitza, jai-guneetako arduradunen eta udal-ordezkarien arteko koordinazioa eta gertakariaren salaketa publikoa egiteko modua.
2. Indarkeria matxistari erantzuteko protokoloa komunikatzeko euskarriak landuko dira.
3. Festa-egunetan, iluntzean eta gauean, eraso matxisten informazio-zerbitzua jarriko da.
4. Pertsonez gain, herriko altzariek jasaten dituzten kalteak zerrendatu.



Gaztetxo talde bat, iazko bazkarian.

AGENDA

Abenduak 5, osteguna

San Nikolas bezpera

10:30etik 12:30era. Jubilatuen hamaietako, Zaharren Babeslekuan.
18:30. Kalejira Pello eta Nikolasa erraldoiekin, buruhandiekin eta Danbolin musika eskolako txistulariekin.
19:30. Burrumba elektrotxaranga. Ibilbidea: Endaia plaza, tabernen inguruan buelta egin eta Herriko Plazara.
20:00. Festen hasierako txupinazoa, Orioko Erraldioen konpartaren eskutik, eta txosnen irekiera. Segidan, Burrumba elektrotxarangarekin festa, plazan.
20:30. Erromeria, plazan, Bide Batez taldearekin.
23:00. Erromeria: Bide Batez.
02:00. Fisher DJ a, txosnetan.
03:30. Xanta DJa, txosnetan.

Abenduak 6, ostirala

San Nikolas eguna

10:00. VI. Kamel Ziani krosa, Muntoko pasealekuaren ondoko parkean, Orioko Atletismo Taldeak antolatuta.
11:00. Meza nagusia, Salatxo abesbatzak kantatuta.
11:00. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umeentzat jolasak, ikastolako pergolan, Orioko Herri Ikastolak antolatuta.
11:00. Herriko txaranga, kalez kale.
12:00. Dantzari txikien dantza sueltoko txapelketa, plazan, Harribilek antolatuta.
17:00. Pilota partidak, Orioko Euskal Pilota Klubak antolatuta. III. Imanol Iburguren Memorialeko infantil mailako binakako bi final: lehena, lehen mailakoa, eta bigarrena, bigarren mailakoa. Ondoren, afizionatu mailako partidak. Emakumeak: Laia Sal-

samendi - Nora Mendizabal vs Miren Larrarte - Miriam Arrillaga. Gizonak: Oinatz Bengoetxea - Aratz Irazustabarrena vs Lorenz Orbeagozo - Unai Albeniz.
17:00. Kalejira Pello eta Nikolasa erraldoiekin, buruhandiekin eta Danbolin musika eskolako txistulariekin.
18:00. Danbolin musika eskolako bandaren kontzertua, plazan. Ondoren, San Nikolas festetako omenezko ekitaldia. Aurtengo omendua: Orioko Erraldioen konpartsa.
19:00. Patata tortilla lehiaketa DBHko gaztetxoentzat, ikastolako pergolan, Orioko Herri Ikastolak antolatuta.
19:30. Matraka elektrotxaranga, kalez kale.
22:00. Bertso saioa Karelán, Errikotxiak antolatuta. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Oihana Iguaran, Aitor Ruiz eta Xabat Illarregi. Gai jartzailea: Xabier Sukia.

23:30. Akaleia eta Bananas taldeen kontzertuak, plazan.

Abenduak 7, larunbata

San Nikolas bigarrena

11:00. Herri kirolak haurrentzat, plazan, Zaragueta Herri Eskolak antolatuta.
11:30. Pintxo dastaketa, plazan, Orioko Herri Ikastolako ikasleek antolatuta.
12:00. Herri kirol jaialdia. Emakumezko kintopekoen harri jasotze txapelketa: Goizeder Abendibar, Naroa Arruti, Olaia Esnaola, Maddi Guesalaga eta Udane Ostolaza.
14:30. Herri bazkaria, Karelán. Izena eman duten arduradunek 10:00etan egon behar dute kiroldegian, muntaiarekin laguntzeko.
18:00. Kalejira Pello eta Nikolasa erraldoiekin, buruhandiekin eta Danbolin musika eskolako trikitilari eta pandero jotzaileekin.

19:00. Joselontxos txaranga, kalez kale.

23:00. Erromeria, plazan, Gozategi taldearekin.

01:30-05:00. DJ Bon, plazan.

Abenduak 8, igandea

San Nikolas hirugarrena

06:00. Gaupaseroen argazkia.
10:00. 3x3 saskibaloia festa, Karelán, Orioko Herri Ikastolak eta Zastek antolatuta.
11:00. Haurrentzat ikuskizuna, plazan: Ekain pailazoa.
12:00. Talo jana plazan, Zaragueta Herri Eskolak antolatuta.
16:00. Mus txapelketa Arraunetxen, Orioko muslari talde batek antolatuta. Izen ematea egunean bertan, 15:00etatik 16:00etara.
17:00. Kalejira Pello eta Nikolasarekin, buruhandiekin eta Danbolin eskolako trikitilari eta pandero jotzaileekin.
18:00. Goxua 'n salsa taldearen kontzertua, plazan.



Alkatea

Anuska Esnal Oliben

Nahi dugun Orio horren bila

Orio errioiari eta itsasoari lotutako herria izanda, ontziak portuan kulunka gozoan atsedean hartzeko garaia izaten zen negua; ospatzeko egunak ziren, hilabeteetako lan luzearen ondoren. Horrela, historian zehar, garaira egokitutako mami eta moldeetan egin dute algarra gure herriko plazan kontserberako langileek, base-ritarrek, ontzigileek, Aragoira izokina eramatera joaten ziren emakumeek...

Gaur egun bestelakoak dira lanbideak, baina, oraindik ere, gure eguneroko erronka eta zailtasunei aurre egiteko, behar-beharrezkoak ditugu lagunarteko solasaldiak, buruhandien aurreko korrika saioak, aske maitatzea, kantzatzea, dantzatzea...

Orioren ehundura askotarikoa da, zorionez, eta guztiok osatzen dugu herria:

udalak, herri mugimenduek, elkarteek, eragile zein norbakoek... Eta, guztiontzako moduko festak egiteko, ezinbestekoa da herria heztea, ahalduntzea eta saretzea. Hori da, hain zuzen, udalaren asmoa: denen ahotsak jaso eta guztion artean egitaraua

Orioren ehundura askotarikoa da, zorionez, eta guztiok osatzen dugu herria

Berdintasunean, inklusibitatean, sexu identitate eta aukera guztiekiko errespetuz, kalea eremu segurua eta askea izateko helburu irmoa dugu

jostea. Aurten ere izango dugu zer hobetu eta zertaz hausnartu, baina argi dugu zer nahi dugun: festa parte hartzaileak, askotarikoak eta askeak.

Berdintasunean, inklusibitatean, sexu identitate eta aukera guztiekiko errespetuz, kalea eremu segurua eta askea izateko helburu irmoa daukagu. Badakigu bide luzea daukagula oraindik ibiltzeko eta ez dugula beti erabat asmatuko; baina, urte osoan bezala, jaietan ere nahi dugun Orio horren bila jarraituko dugu, alai eta kontziente, umorez eta tinko. Herritar guztiek aske gozatuko dituzten plazak sortzeko konpromiso sendoarekin eta, Olatz Salvadorren kantuak dioen bezala:

*Atzamarrak basan
Ikusten ez denaren gainean
dantzan...*

Gora sanikolasak!





**Herrietatik sortutako
komunikazio taldea gara,
gure komunitateaz
jarduten dugu,
gure begiekin, gure erara,
gure hizkuntzatik:**

**GUKA
gara**